

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Enplegua eta enpresa-jarduera sustatzeko erabiliko da 2014-20ko Europako programa eragileko 126 milioiren % 92

*Nafarroako Gobernuak gaur jakin du Bruselan aukeztu den EGF eta EGEF egitura-funtsetarako behin betiko proposamena*

Miércoles, 23 de julio de 2014

Dagoeneko aurkeztu du Nafarroak Europako Batzordean 2014-20rako EBren egitura-funtzen [programa eragilerako proposamena](#). 22 neurrik osatzen dute eta 126,2 milioi euroko aurrekontua du. Enplegua sortzeko eta ekonomia aktibatzeko erabiliko da ia zenbateko osoa, enpresetan ikerketa eta berrikuntza sustatuta eta enpresa txiki eta ertainei babesa emanda.

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan jakin du Bruselara bidalitan azken plangintzaren berri.

Prroposamena egin ahal izateko, egoeraren diagnostikoa egin zen lehenengo eta behin. Hori oinarri, jarduteko helburuak eta lehenetsiak zehaztu ziren eta, horien arabera, oinarriko proposamen bat prestatu zen. Agente sozialek eta herritarrek parte hartu ahal izan zuten proposamena osatzeko prozesuan. Behin betiko dokumentuak Foru Komunitateak datozen zazpi urteetarako proposaturiko banaketa jasotzen du, hau da, Eskualde Garapeneko Europako Funtzari (EGEF) dagozkion 86.746.416,01 euro eta Europako Gizarte Funtzari (EGF) dagozkion 39.484.307 euro inbertitzeko.

Proiektuen % 50 finantzatzen dute bai Nafarroako Gobernuak, bai Europar Batasunak. Hala ere, jardueren finantzazioa aurreratu behar du Foru Komunitateak eta, ondoren, dagokion zatia ordaintzen du EBk.

### Aurrekontuaren banaketa

Proposamenak [22 neurri zehatz](#) jasotzen ditu eta, horiek oinarri hartuta, Foru Komunitateak aurrera egin behar du hazkuntza adimendun, iraunkor eta integratzailearen alorreko [Europa 2020 Estrategiaren](#) adierazleak betetzeko bidean.



Aurrekontuaren % 38 hartuko du ikerketaren eta berrikuntzaren sustapenak

Ekonomia aktibatzea eta enplegua sortzea dute helburu proposatutako 22 neurrietatik 20k (aurrekontuaren % 92), eta azpimarratzekoak dira ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzera bideraturikoak, daukaten pisu ekonomikoagatik (47,3 milioi euro hartzen dituzte, aurrekontuaren % 38).

Beste 35,9 milioi euro lanerako sarbidea emateko inbertituko dira (% 31), langileen prestakuntza hobetuta zein jendea kontratatuta. Azkenik, enpresa txiki eta ertainentzako babesa proposamenaren hirugarren ardatza da, eta 28,8 milioi euro bideratuko dira (% 23).

### **Programa nagusiak**

Enplegua eta langileen prestakuntza sustatzera bideratutako bost neurriek 39.484.307 euroko aurrekontua dute, eta EGF programan sartuta daude. Lehentasunezko zatik jo diren proiektuen artean daude honako hauek: prestakuntza-programak (15,86 milioi euro), langileen gaitasunak hobetzeko, eta tokiko erakunde bidezko langabetuen kontratazioa (11,55 milioi euro); gizarte-enplegu babestua baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak kontratatuta (7,73 milioi euro); urritasunen bat duten pertsonen enplegua (3,15 milioi euro), eta langabetuak bazkide egiten dituzten ekonomia sozialeko enpresentzako laguntzak (1,19 milioi euro).

Bestalde, ekonomia aktibatzearen alorrean, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea da lehentasuna, enpresen lehiakortasuna hobetzeko funtsezkoa delako. Neurrien multzo horrek 47,3 milioi euroko aurrekontua duten 12 neurri jasotzen ditu. Jarduera gehienak (36,25 milioi) bat datoz Plan Teknologikoaren helburuekin, eta enpresa txiki eta ertainei eta zentro teknologikoei ikerketa-proiektuak gauzatzeko eta langile espezializatuak kontratatuzeko baliabideak ematea dute helburu. 11,12 milioi euroko bigarren atala arlo biosanitarioari loturikoa da, eta ikerketa biomedikoa sustatzeko eta osasunaren alorreko informazio-sistemak hobetzeko ekintzak jasotzen ditu.

EGEF programa eragilearen hirugarren atal nagusia enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko da, eta 28,79 milioi euroko aurrekontua du. Zenbatekoaren zati handiena inbertsio produktiborako da (25,61 milioi), baina enpresen jarduera nazioarera zabaltzeko neurriak (1,9 milioi) eta produktibitatea hobetzeko neurriak ere badaude (350.000 euro).

Orain arte aipatu diren eta zuzenean ekonomia aktibatzearekin erlazionatuta dauden neurriez gain, EGEF funtsek beste helburu bat dute: etxebizitzetako ingurutzailerako termikoak birgaitzea. Horretarako 8,34 milioi euro bideratuko dira. Amaitzeko, beste 2,23 milioi euro programa kudeatu, jarraitu, ebaluatu eta kontrolatzeko erabiliko dira.

### **Prozedura jarraitua**

Bruselara bidalitako dokumentuak Europar Batasunak araututako prozesua amaitzea dakar. Prozesu horretan, egoeraren diagnostikoa egin da (ebaluazio-txostenak), lehentasunak identifikatu dira (estrategia-dokumentuak) eta neurri zehatzak ezarri dira (programa eragileak).

Proposamena prestatzeko, sindikatuak, tokiko ekintza-taldeak, enpresarien elkarteak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak osatutako kontsulta-talde batek parte hartu zuen hasierako fasean. Ondoren, ekainean, Internet bidez herritarren iritzia biltzeko prozesua hasi zen.

Behin betiko proposamena aurkeztu ondoren, Europako Batzordeak neurriak baloratzeko eta negoziatzeko prozesua hasiko du, urtea amaitu arte iraungo duena. Hala ere, bitartean, hasi dira aplikatzen Nafarroako Gobernuak lehentasunezko zatik jotzen dituen jardueretako batzuk.